



**LEHENDAKARITZAREN ERABAKIA, B 24/0093.**

**Langileak: Aldi baterako programa-energia Teknikaria**

**HONAKO GERTAKARIAK IKUSITA:**

Urola Kosta Udal Elkarteak energia teknikari lanpostu bat, aldi baterako programa bati atxikituta, hornitu beharra antzeman zuen eta, horretarako, hautaketa prozesua arautzeko oinarriak argitaratu ziren bai Lanbiden bai Urola Kosta Udal Elkarteko web orrian, 2024ko ekainaren 18an.

Izen emateko epea 2024ko ekainaren 25ean amaitu zen, eta izen emandako pertsonen artean oinarrietan zehaztutako derrigorrezko baldintzak betetzen zituzten hautagaiei egun eta ordu zehatza esleitu zitzaieen elkarrizketa eta ahozko ezagutza proba burutzeko.

Elkarrizketak 2024ko uztailaren 3an, 4ean eta 5ean burutu zitzaizkien aurkeztu ziren bederatzi (9) hautagaiei, eta oinarrietan finkatu bezala 40 minututan gauzatu ziren.

**ONDORENGOA KONTUAN HARTUTA:**

BAT: Abenduaren 1eko Euskal enplegu publikoaren 11/2022 legeak, 28.1.e) artikuluan, aldi baterako programari buruz eta 77, 79.2 eta 80.2 artikulutan bitarteko funtzionarioen hautaketari buruz jasotako xedapenak.

BI: Hautaketa organo teknikoak 2024ko uztailaren 12an emandako akta.

Legeak ematen dizkidan eskuduntzak kontuan hartuta, zera

### ERABAKI DUT:

**LEHENA:** ALDI BATERAKO PROGRAMARI atxikituta ENERGIA TEKNIKARI lanposturako **ENEKO LARUMBE AGUIRRE 72.546.348R** jauna izendatzea bitarteko funtzionario gisa, 2024ko uztailaren 17tik 2025eko abuztuaren 16ra, beti ere, hiru hilabeteko frogaldia gainditzeko baldintzapean.

**BIGARRENA:** Izendapen hau aldi baterako programaren baldintzetara atxikitzea, hau da, urtebeteko epealdi hau, luza daiteke beste urtebetez, bai 2025tik 2026ra, bai 2026tik 2027ra, Udal Elkartearen erakundeak beharra izaten jarraituz gero eta lanpostuan jarduten duen enplegatuak betebeharrak eginez gero.

**HIRUGARRENA:** Ondorengo **lan-poltsa eratzea ENERGIA TEKNIKARI** lanpostuetan egon daitezkeen aldi baterako hutsuneak eta beharrak betetzeko:

Hurrenkera	Izen abizenak			NAN
1	CARMEN	MARTINEZ DE LEJARZA	AMENABAR	44.333.623L
2	MIKEL	LARRAÑAGA	AIZPURUA	72 849 157S
3	IOSU	ROMERO	AIZPURUA	72.527.532E
4	MIKEL	URDANGARIN	ALKORTA	44.131.757R

**LAUGARRENA:** Ebazpen hau interesdun guztiei jakinaraztea eta Urola Kostako Udal Elkarteko web orrian argitaratzea.



<b>Sinatzailea</b>	Urola Kostako Udal Elkarteko lehendakaria Ion Arozena Eizagirre	
<b>Kodea</b>	B 24/0093	
<b>URL</b>	<a href="https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/0/199/AAAA4S117.gjYd">https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/0/199/AAAA4S117.gjYd</a>	
Dokumentu hau elektronikoki sinatu da, honen baliotasuna egiaztatzeko hurrengo Web-an sarbideratu zaitetz edo QR irudia irakurri ezazu / <i>Este documento se ha firmado electrónicamente, para verificar la validez de este documento acceda a la WEB o lea la imagen QR</i>		
		